

LAUAXETA

" L A U A X E T A "


Gazte gazterik maite zenduan
Aberri menperatua,
biotz barrendik sentidu zendun
beren miñaren oiua;
norbere ama ikusirikan
indarkeriz zapaldua,
zure bizia samindu jatzun
biotz zauriz urratua.

Laguntza deia asmatu zendun
seme leialen erara,
al zan aiñean opaldu teko
amaren ezbearrera;
urtzi ta lurrak emon eutsuen
bultzada garra ortara,
buru ta biotz eskeindu ziñan
Aberriaren miñera.

Lenen lenengo buruz argitu
gizonen jakiturian,
era berean, odolez gertu
biotza maitasunean;
zure izkuntzak urratu zitun
bide barriak errian,
zure biotza gori-goririk
abertzaletasunean.

Mutil gaztea amets betean,
zenbiltzan lanez josirik,
luma bizi az erri argitzen
zuzentasunen bidetik;
erriarentzat gura zenduan
askatasuna legetik,
zure erriaz bat egin ziñan
itz ta biotzez urturik.

Gero ondoren gaitz itzalena
eldu zan gure errira,
guda zakarra gorroto biziz
erri ta mendietara;
Gernikan artuz Gazteiz'era
erun zinduzen iltera,
Jaingo maitasun ta-Aberri garrez
odola-ixuriz lurrera.



OMENALDIA MUNGIAN
1.987.eko Bagillak 27

*Agur Lauaxeta maite
izarrak dagoz zeruan
batzuk dizdizago;
zure argia dator
eguzkiarena lez
izar urreago.*

*Ontasuna da nausi
Kristoren irudia
bildots zurietan;
millinoi artizarrak
dizdizean dabiltsa
Jaingo eztaietan.*

*Izartik izarrera
urrea da nagusi
zoriontasunez;
nekearen samiñak
zerua urretzen dau
gotzon maitasunez.*

*Ona maite izan zendun
Jaingoak gizona lez
kurutza gaiñean;
odolezko arantzak
zorion biur jatzuz
Aitarene aurrean.*

*Erria maite zendun
ta dana emon zeuntzan
Euskalerrinari;
danez goitik kristaua
etsaiei parkatuaz
Kristoren iduri*

*Zure lore ederrenak
siñismen ta maitasuna
kurutzaz mindurik;
dana da, gaur, zuretzat
Aitagaz alkarturik
zoria bizirik.*

Paulin.